



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko uztailaren 5a

90. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan Lizarrako Osasun Barrutiaren egoeraz, giltzurruneko patologiarri eta, zehazki, hemodialisiari dagokionez. Osasun Batzordeak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da bultza dezan Red Eléctrica Españolaren 2021etik 2026ra bitarteko Plana lehenbailehen onets dadin. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordeak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alokairuko etxebizitzaren parke publikoa handitzera bideratutako politikak indar ditzan, sustatzaile pribatuekin egindako hitzarmenen alternatiba gisa. Lurrealde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Batzordeak onetsia (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaion NutriScore nutrizio-etiketatu frontalaren ezarpena geldiaraz dezan, harik eta Europar Batasunak herrialde guztietarako etiketatu harmonizatu eta erkide bat onetsi arte. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordeak ezetsi du (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” 14 DDSS, REACT EU Navarra proiektua dela-eta udalekin eta mankomunitateekin egindako akordioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” 14 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren laguntza teknikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan Lizarrako Osasun Barrutiaren egoeraz, giltzurruneko patologiar eta, zehazki, hemodialisiari dagokionez.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2021eko ekainaren 29an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan Lizarrako Osasun Barrutiaren egoeraz, giltzurruneko patologiar eta, zehazki, hemodialisiari dagokionez”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. “Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Lizarrako Osasun Barrutiaren egoera azter dezan, giltzurruneko patologiar eta, zehazki, hemodialisiari dagokionez, terapia hori behar duten gaur egungo pazienteen kopurua eta terapia hori eskatzen dutenen haz-

kundeari buruzko perspektiba baloratzeko, García Orcoyen ospitalean hemodialisiko unitate bat sortu behar den ala ez baloratzeko.

2. Azterlanaren emaitzak horretarako bidea ematen badu, Nafarroako Parlamentuak Gobernua premiatzen du Hemodialisiko Unitatea eraikitzeko azterlana lehenbailehen lizitzatzeko eta 2022an obrak hasteko. Azterlanak ez badu justifikatzen Hemodialisiko Unitatea ezartzea, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azter eta balora ditzan paziente horiek tratamendua jasotzeko joan-etorrietarako modalitateak, nahitaezko bidaiak eragindako eragozpenak ahal den gutxian gutxitze aldera”.

Iruñean, 2021eko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da bultza dezan Red Eléctrica Españolaren 2021etik 2026ra bitarteko Plana lehenbailehen onets dadin.

GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordeak, 2021eko ekainaren 30ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da bultza dezan Red Eléctrica Españolaren 2021etik 2026ra bitarteko Plana lehenbailehen onets dadin”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du, kasuko ministerioaren bitartez bultza dezan Red Eléctrica Españolaren 2021etik 2026ra bitarteko Plana lehenbailehen onets dadin (bertan, Estellerria azpiestazio berri bat, 220Kv-koa, eta Muru Artederreta-Estellerria zirkuitu bikoitze lineak berri bat, 220Kv-koa, jasota ageri dira), eta albait lasterren zertu dadin.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, proiektua, oro har, “foru erki-degoaren intereseko inbertsio” deklaratu dezan, ukitutako departamentuek, bereziki, egin daitezkeen eta beharrezkoak diren zuzemen guztiak egin ditzaten, Estellerriko Merindadean hain beharrezkoak diren eta hainbestetan eskatu diren azpiegitura

elektrikoak ezartzearen REEk planifikatutako lanak alait lasterren egitera bideratutako administrazio-izapideak nahiz txosten eta diligentzien epeak azkartzeko eta murrizteko”.

Iruñean, 2021eko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alokairuko etxebizitzaren parke publikoa handitzera bideratutako politikak indar ditzan, sustatzaile pribatuekin egindako hitzarmenen alternatiba gisa.

LURRALDE ANTOLAMENDUKO, ETXEBIZITZAKO, PAISIAKO ETA PROIEKTU ESTRATEGIKO-ETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Batzordeak, 2021eko ekainaren 30ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alokairuko etxebizitzaren parke publikoa handitzera bideratutako politikak indar ditzan, sustatzaile pribatuekin egindako hitzarmenen alternatiba gisa”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Alokairuko etxebizitzaren parke publikoa handitzera bideratutako politikak indar ditzan,

sustatzaile pribatuekin egindako hitzarmenen alternatiba gisa, eta, ildo horretan, Navarra Social Housing plan horren beraren bigarren fase bat bideratu dezan.

2. Erraztasunak eman ditzan lurzorua azalera-erabilgaitzeko araubidean lagatzeko, betiere indarreko araudia betez eta horren ondorioz aurrekontu-izaerako eragozpenak eta zorpetzearen arloko etorkizuneko kargak sortzea saihestuz, enpresa sustatzaileek lagun dezaten alokairuko etxebizitza babestuak sustatzen eta, bide horretatik, Nafarroako Gobernuaren etxebizitza-parke publikoa handitzen”.

Iruñean, 2021eko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaion NutriScore nutrizio-etiketatu frontalaren ezarpena geldiaraz dezan, harik eta Europar Batasunak herrialde guztietarako etiketatu harmonizatu eta erkide bat onetsi arte.

GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALEKO BATZORDEAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordeak, 2021eko ekainaren 30ean egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaion NutriScore nutrizio-etiketatu frontalaren ezarpena geldiaraz dezan, harik eta Europar Batasunak herrialde guztietarako etiketatu harmo-

nizatu eta erkide bat onetsi arte. Mozioa Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu zuen eta 2021eko ekainaren 18ko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” 14 DDSS, REACT EU Navarra proiektua dela-eta udalekin eta mankomunitateekin egindako akordioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” 14 DDSS, REACT EU Navarra proiektua dela-eta udalekin eta mankomunitateekin egindako akordioari buruzkoa. Galdera 2021eko maiatzaren 21eko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak

galdera egin du REACT EU Navarra funtsetako “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak (PEPI)” neurriaren kudeaketari buruz (10-21/PES-00196). Hona hemen Nafarroako Gobernuo Eskubide Soziales-tako kontseilariaren erantzuna:

Funts horiek gauzatzeko baldintzak eta gastua hautatzeko eta justifikatzeko eska daitezkeen betekizun tekniko eta ekonomikoak zehaztu ondoren, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak dagozkion erabakiak hartuko ditu neurri hori betearazteko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Eskubide Soziales-tako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, “Kolektibo zaurgarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” 14 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren laguntza teknikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Kolektibo zaurgarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” 14 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren laguntza teknikoari buruzkoa. Galdera 2021eko maiatzaren 21eko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du REACT EU Navarra funtsetako “Kolektibo zaurgarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak (PEPI)” neurria dela-eta aurreikusitako laguntza teknikoari buruz

(10-21/PES-00197). Hona hemen Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

REACT funtsen programazioaren arloko esku-mena Nazioarteko Proiektzio Zerbitzuarena da, Europako Gizarte Funtzari edo Eskualde Garapeneko Europako Funtzari dagozkion Europako funtsak baitira. Funtz horiek gauzatzeko baldintzak eta gastua hautatzeko eta justifikatzeko eska daitzkeen betekizun tekniko eta ekonomikoak zehaztu ondoren, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak dagozkion erabakiak hartuko ditu neurri horiek betearazteko, balizko laguntza teknikoa barne.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

